



Kurutziagako kurutzea

Eskillara bean KURUTZIAGAKO KURUTZEA daukogu. Durangon 1.420 gn.eraikia. (Alboan bikain aldakituta). Ordain-eskeintza da, siniste -ausi keskagarri ta entzutetsu bat garbitzekoa. Ez da, ba, muga-gurutzea.

Kristiñau- erlijioaren bilduma da, iru zatitan banandua.

I-Zuaitz-bizitza adierazten dauan zortzi-aldeko agagañean, Paradisuko suge tentatzaleak zuaitz- enborra besarkatuten dau.

Lenengo danborrean, Evaren buru txukuna dager, gotiko-era aztarnakaz. Ondoan Adan, eta berau Paradisutik egozten dauan sugarrezko ezpatadun Aingerua.

II- Bigarren danborra zabalagoan, Apostolu batzuk ikusten dira. euren ezaugarri ta guzti, Barri Ona zabaltzen, Eroskundearen itxaropenagaz.

III-Zabalduaz doan Kurutzean, Kristo gurutzatua ikusten dogu, Aingeru batek odola batzen deustola, ta beso-ertzetan Eguzki ta Itargiaren irudiak.

Kurutzean Kristo, buru makur, illik, eta atsekaldean, goi-goien, kristau batek lortu leikean sari zoragarriena: Zeruetan, Ama Birjiña Santuekin.

Aingeru musikalaria ta Santak osatzen dabe ikuskizuna. Euren artean Santa Katalina dagola diruri, ondoan daukan aitzo zorrotzeko gurpillaren araberan.

Agustin Arrien

Klaudio barruetak euskeratua